



03

APLIKAZIOAK ETA AZTERKETA TEORIKOAK

>>>

TEKNOLOGIA IDAZLEAREN LAGUN

Fernando Morillo

Idazlea

Helbide elektronikoa: fernandomorilloidazlea@gmail.com

ALDI BEREAN MIRETSITA ETA BELDUR

Gizakiok ertzean gaude oro har. Hala egokitzen zaigulako edo gogokoa dugulako, auskalo. Baina labarretan egon ohi gara, aldi berean itsasoa ederresten eta amildegira erortzeko beldurrez. Horrexegatik, ziur asko, muga-aro batean bizi garela uste dugu etengabe. Egia bezain gezurra: ezohikoa askotan gertatzen denean ez da hain ezohikoa.

Nolanahi ere, ezingo nuke ukatu garai zinez interesgarria dela gurea. Muinean, beharbada, betiko beldurrez eta nahasmenez blai jarraituko dugu. Nekez aldatuko da hori. Mozorroa, ordea, dezente aldatu da. Oraingoan, teknologiak goitik behera konkistatu gaitu, eta ate joka ari zaigu nonahi, eten, krisi, aldaketa edo dena delako (betiko zera) horretan.

Artikulu honetan, nire ikuspegi(subjektibo)tik marraztuko dut zer ikusten dudana aldaketa teknologiko horri dagokionez. Idazlea naizen aldetik, azpimarratuko nuke begiratzeko beste modu, beste *formatu* batzuk ikusi ditudala urteotan. Hobeak? Ziur asko ez. Bai desberdinak.

Beldur izan diegu makinei, sortu zirenetik. Ez ote digute lapurtuko munduan geurea dugun txokoa? Ez, ez, nabarmentzen dugu berehala: makinek, asko jota, lan mekanikoa egingo dute. Ez dute inoiz, ordea, ezer

sortuko. Oraingoz, egia dela ematen du, eta, itxuraz, sormen artistiko orok senari (arrazoiak kanpoko zerbaiti) zor dio bere indarra, eta ez inolako mekanismori. Ados (oraingoz).

Teknologia, ordea, ez dio bortxa egiten sen horri, bidea ibiltzeko beste modu bat ekartzen baizik. Teknologia ez da zirkuluaren koadratura, baina gure gihar nekatuentzako makulu bihur daiteke. Bi eratara lor lezake hori:

- 1- Sortzaileen eguneroko lana errazten eta aberasten.
- 2- Begirada aldatu egin da. Garai bateko testuinguruek eta perspektibek gutxi (maizegi ezer gutxi) esaten diete gaurko belaunaldiei. Gazteek ez dute (noiz edo noiz iradokitzen den moduan) istorioak bereganatzeko irrika galdu, baina beste hizkuntza (teknologikoago) batez mintzatzen dira. Hizkuntza hori entzuten asmatu beharko dugu, edota are... *sortzen* (dema ederra!). Oso goiz da, ordea, horretaz zentzuz jardun ahal izateko. Etorriko da, eta orduan jardun beharko dugu.

Bigarren puntu horri dagokionez ezin denez askoz gehiago esan, aurrenekoari helduko diot: nola aberats dezake teknologia idazle baten lana?

Teknologia ez da idazlearen ordeko, jakina, baina egundoko laguntza eman dezake sortzeko, itzultzeko edo ideiak atontzeko orduan. Idazleak hitzak maite ditu, oztopoak oztopo. Haiek, ordea, maitale iheskor samarrak dira. Ataka hori eztitzeko asmoz, beraz, eta labur bada ere, idazle (itzultzaile, kazetari, sortzaile...) batek egunerokotasunean izan ditzakeen zenbait laguntza (teknologiko) aipatuko ditut jarraian.

Zer esanik ez, nik neuk erabiltzen ditudan “zerak” azalduko ditut, eta horiek, noski, ez dira izango inola ere dauden guztiak. Oso daitekeena da dagoeneko gehiago eta are hobeak egotea. Informatikaren munduan oso zaila baita beharrezkoa litzatekeen guztia ere ezagutzea.

Sarrera moduko hau amaitu aurretik argitu nahi dut ez dagoela zertan “tekno-aditua” izan aipatuko diren guztiak erabiltzeko eta aprobetxatzeko.

Orain bai, noan harira.

BIDAIA, MAKULU

1. Benetako eramangarriak: PDA

Ordenagailu eramangarrien eramangarritasuna, askotan, izenean geratzen da. Ez dira hain arinak, ez dira hain fidagarriak. Zenbat irauten du bateriak, esate baterako? Betiere dendan berresten dena baino dezentez gutxiago.

Nire kasuan, hara eta hona ibili behar izaten dut lan kontuengatik, eta maiz orduak egiten ditut han edo hemen, itxaroten edo bidaiatzen. Denbora hori aprobetxatzeko, besteak beste oharrak hartzea gustatzen

Idazlea naizen aldetik, azpimarratuko nuke begiratzeko beste modu, beste formatu batzuk ikusi ditudala urteotan. Hobeak? Ziur asko ez. Bai desberdinak.

Teknologia, ordea, ez dio bortxa egiten sen horri, bidea ibiltzeko beste modu bat ekartzen baizik. Teknologia ez da zirkuluaren koadratura, baina gure gihar nekatuentzako makulu bihur daiteke.

Nik neuk erabiltzen ditudan “zerak” azalduko ditut, eta horiek, noski, ez dira izango inola ere dauden guztiak. Oso daitekeena da dagoeneko gehiago eta are hobek egotea. Informatikaren munduan oso zaila baita beharrezkoa litzatekeen guztia ere ezagutzea.

Badira plastikozko teklatu tolesgarri batzuk, arinak eta oso erabilgarriak. Tolesturik daudela, liburu txiki baten tamainaren erdia izango dute. Zabaltzean, ordenagailu bateko ohiko teklatu baten tamaina hartzen dute, eta haietan bezain eroso idazten da.

zait. Garai batean eskuz hartzen nituen oharrok, baina sarritan orriak eta orriak betetzen nituen, eta gero sekulako lana hartu behar nuen hura guztia ordenagailura pasatzeko. Horrexegatik, orain, ahal den neurrian behintzat, datuak zuzenean digitalizaturik hartzen ahalegintzen naiz.

Modurik errazenetarikoak, izenburuan azaltzen den PDAk dira (*Personal Digital Assistant*, ingelesez). PDAk, nolabait esateko, eskuko ordenagailuak dira. **Benetako eramangarriak**. Oso arinak dira (ohiko sakelako telefono batek baino zertxobait gehiago pisatzen dute), eta aukera zinez interesgarriak ematen dituzte.

Berez, agenda elektronikoa gisa jaio ziren, baina apurka-apurka gero eta funtzio gehiago hartzen joan dira. Nire PDA nagusia oso zaharra da (Palm m500 modeloa da), baina adin horrek abantailak ematen dizkio eragozpenak baino gehiago. Pantaila monokromoa da (kolore bakar batekoa), eta primeran ikusten da edozein argitan. PDA berriek, esate baterako, milioika kolore dituzte, baina eguzkitan ez dira zaharrak bezain ondo ikusten.

PDA zahar horren beste abantaila bateria da. Sekulako iraupena du, eta orduak eta orduak eman ditzaket oharrek hartzen, irakurtzen (ehun-ka liburu gorde daitezke memoria-txartel txiki bakar batean), kontsultak egiten (entziklopediak eta hiztegiak sar daitezke; besteak beste, **Euskal Wikipedia**), agenda aztertzen, eta abar.

Oharrek hartzeko, teklatu erreal batez baliatzen naiz. Alegia, ez da ibili behar sakelako telefonoekin bezala, botoitxoekin borrokan, mezu txikiren bat idazteko. Badira plastikozko teklatu tolesgarri batzuk, arinak eta oso erabilgarriak. Tolesturik daudela, liburu txiki baten tamainaren erdia izango dute. Zabaltzean, ordenagailu bateko ohiko teklatu baten tamaina hartzen dute, eta haietan bezain eroso idazten da.

PDA horiek, gainera, berehala pizten dira. Botoiari sakatu bezain laster har ditzakezu oharrek. Ohiko eramangarriekin, berriz, pixka batez egon behar duzu zain (zenbaitetan, minutu bat baino gehiago). Hori dela eta, PDA izatea, niretzat, sekulako aukera izan zen: edonon nabilela ere (metroan, busean, mendi tontorren batean eserita...), PDA txikia atera, eta irakurri eta oharrek har ditzaket, oso modu erraz eta azkarrean.

Aipatuko dudak azken abantaila: OSO merke eskura daitezke. PDA zaharrak, Sarean pixka bat bilatuz gero, 40 euroren bueltan egongo dira. **Ona, ederra, merkea...** Zer gehiago behar da? Eta ez daukat inolako komisiorik, garbi gera dadila!

2. Informazioa bilatzen... eta aurkitzen: hiztegiak eta entziklopediak

Informazioa bilatzea baina errazagorik... ezta? Eta aurkitzea? Bada, askotan, beste labeko opila. Gainera, inoiz baino arrisku errealagoa da gehiegizko informazioa, eta gaur egun ezinbestekoa zaigu itsaso zabal horietan nabigatzen jakitea.

Ohiturak eta usadioak estu lotzen gaitu paperari, eta gogorra zaigu gure betiko (paperezko) hiztegiakoteak lan-mahaitik kentzea. Lotura horri aurre eginez gero, ordea, zenbait gauza interesgarri irabazi ahal izango ditugu: kontsulta askoz zehatzagoak, edo zabalagoak, edo azkarragoak.

Idazleak (itzultzaileak, kazetariak, gidoilariak...) informazioa behar du, eta informazio horrekin jolas egiteko aukera. Entziklopedia eta hiztegi elektronikoak iturri ederra (eta azkarra) dira datuak lortzeko, harilkatzeko nahiz korapilatzeke (azken hori baita, batzuetan, sortzeko baldintza).

Gaur egun, euskarazko hiztegiatariko asko digitalizaturik daude jadanik: **Elhuyar**, **Hiztegi 3000**, **Lur**, **Sinonimoak** (UZEI taldearena nahiz **Adorez**-ek egindakoa), eta abar. Horien guztien abantailak nabarmenak dira: oso erabilerrazak dira, ez dute lekuri hartzen, kontsultak oso modu azkarrean egin daitezke, informazioa zuzenean kopia dezakezu (guztia "pikatzen" ibili beharrean), eta abar.

Hiztegi horiez gainera, badira mundu osoan ospetsuak diren beste hiztegi batzuk ere: **Encyclopaedia Britannica**, **Enciclopedia Universal Micronet**, **Microsoft Encarta**, eta abar. Aurrekoen abantaila zuzena bera dute: erabilerrazak izatea, batere leku fisikorik ez hartzea eta informazio pilo bat oso eskura jartzea.

Aurreko hiztegi guztiez gain, bada beste bat aparteko azalpena merezi duena: **BABYLON** hiztegia. Zintzoak izateko, esan behar da Babylon ez dela zehatz-mehatz hiztegia, **egitura** baizik. Ehunka hiztegi gorde ditzake bere baitan! (Elhuyar euskara-gaztelania hiztegia barne).

Babylon egiturari leku berezia emateko arrazoi nagusia zera da: ehunka hiztegi horiek guztiak **aldi berean** kontsulta daitezkeela! Benetan erraza da Babylon erabiltzea, bere datu-baseetan nabigatzea... eta hiztegiak lortzea. 50 hizkuntzatik gora daude "erabilgarri", eta 1.300 hiztegi baino gehiago dauzka eskura (gehienak doan).

Gehixeago zehaztuta: ia edozein testu (digital) dugula ere (testu-prozesadorean, sarean nabigatzen ari garela...) ehunka hiztegitan kontsultatu ahal izango dugu **berehala**. Zeinahi hizkuntzatan **irakurtzeko interesgarria**, baina **itzultzeko OSO-OSO-OSO ERABILGARRIA**.

3. Datu-baseak

Euskaraz idazteko orduan, badira Interneten zenbait informazio-gune interesgarri: **Jagonet**, **Inguma**, **Euskalterm**, **Euskaltzaindia**, **Erabili.com**, eta abar... Idazle, kazetari, itzultzaile gehienek ezagutuko dituztela pentsatzen dut.

Dena dela, nik nahiago dut behar ditudan datu-baseak nik neuk sortzea, ahal den neurrian, behintzat. Oso erraza da. Azaletik bada ere, hiru modu azalduko ditut:

*Aurreko hiztegi guztiez gain, bada beste bat aparteko azalpena merezi duena: **BABYLON** hiztegia. Zintzoak izateko, esan behar da **Babylon** ez dela zehatz-mehatz hiztegia, **egitura** baizik. Ehunka hiztegi gorde ditzake bere baitan!*

Inforapid search oso programa txikia da, baina indar izugarria dauka testu-artxiboetan bilatzeko eta informazioa txukun eta azkar erakusteko. Di-da batean jakin dezaket hitz edo esamolde bat non agertzen den, nola erabiltzen den, haren testuingurua, maiztasuna...

Yahoo Desktop Search, edo Google Desktop Search (biak dira onak, baina nik lehena nahiago). Programa horiek ordenagailuko erraiak arakatzen dituzte, eta, ondoren, informazio guztia eskura uzten. Erraza da, horrela, datuen artean mugitzea eta behar dena aurkitzea.

3.1 **Inforapid search programa.** Korpus bat sortu, eta behar dugun informazioa sartu hartan. Eman dezagun, esate baterako, filosofiari buruzko (euskarazko) datu-base bat sortu nahi dudala. Helbide honetara jo dezaket: www.klasikoak.org. Han, eskura (eta doan) dauden liburu guztiak jaitsi, eta fitxategi batean gorde. Ondoren, *Inforapid search* izeneko programa instalatu, eta eginda. *Inforapid search* oso programa txikia da, baina indar izugarria dauka testu-artxiboetan bilatzeko eta informazioa txukun eta azkar erakusteko. Di-da batean jakin dezaket hitz edo esamolde bat non agertzen den, nola erabiltzen den, haren testuingurua, maiztasuna...

3.2 **Desktop search motako programak.** Aurreko kasuan bezala, lehenbizi korpus bat sortuko dugu, interesatzen zaigun informazioa bilduz (hurrengo puntuan bertan hori egiteko beste modu bat ere azaltzen da). Ondoren, zure ordenagailu osoa arakatzen duen programa bat jaitsi dezakezu. Esate baterako: *Yahoo Desktop Search*, edo *Google Desktop Search* (biak dira onak, baina nik lehena nahiago). Programa horiek ordenagailuko erraiak arakatzen dituzte, eta, ondoren, informazio guztia eskura uzten. Erraza da, horrela, datuen artean mugitzea eta behar dena aurkitzea.

3.3 **Web-gune osoak jaitsi.** Demagun esamolde bat (edo albisteren bat, hitzen bat...) kontsultatu nahi dugula Interneten. Web-guneen beren bilatzaileetan begira dezakegu (*Berrian, Garan, Argian, Susan...*), baina, sarritan, aurkitu nahi dugun hura ez da azaltzen... **han egon arren.** Alegia, web-guneetako bilatzaileek informazio-zati txiki bat baino ez dute bilatzen, oro har, eta, ondorioz, informazio gutxi aurkituko dute, ezinbestean. Badira "gabezi" hori saihesteko modu erraz eragingarriak. Hasteko, interesatzen zaigun web-gune osoa jaitsi daiteke, horretarako egokia den programa batez (ona iruditzen zaidan bat aipatuko dut: **Httrack**). Ezin dira web-gune guztiak jaitsi, baina bai asko. Proba egin beharko duzue. Ondoren, aurreko puntuan ikusitako *Desktop search* deritzen programak erabili ditzakegu, informazio hori **guztia** txukun-txukun izateko (guneetako ohi-ko bilatzaileetan ez bezala, han ez baitituzte maiz datu guztiak izaten).

4. Testuak entzuteko programak

Idazteaz gain, idazle batek (oro har behintzat) asko irakurri behar du. Denbora, ordea, iheskorra da, eta lan egin behar da hura ahalik eta ondoren ustiatzeko. Esate baterako, zenbat ordu egiten ditugu autoan (busean, trenean), batera eta bestera joanez?

Horretaz kezkatuta, eta denbora hobeto aprobetxatu nahian, testuak ahots bihurtzen dituzten programa batzuk aurkitu nituen. Oso sinpleak dira. Nik gehien erabiltzen dudana *TextAloud* izenekoa da, baina badira antzeko beste batzuk ere.

Programak zenbait ahots "elektroniko" ditu. Erabiltzaileak gehien gustatzen zaiona aukeratu beharko du, eta, ondoren, testu bat sartu. Pro-

gramak ahots bihurtu eta soinu-artxibo bat sortuko du. Artxibo hori musika entzuteko edozein gailutan entzun ahal izango dugu.

Nik neuk, esate baterako, mendi-bueltak egitean musika entzuteko gailutxo txiki batean sartzen ditut, eta hala, mendian ibiltzeaz gain, liburuak entzuten ditut. Autoan luzaro ibiltzen naizenean ere horixe egiten dut askotan: liburuak entzun.

Esan beharra dago euskarazko “irakurtzailea” garatzen ari direla (IXA taldea), baina oraingoz erdal motorrak erabili behar dira.

5. Irudietatik informazioa ateratzen

Zenbait ikastaro eman izan ditut teknologia eta literaturaren arteko harremanak aztertzeko. Horietako askotan, interes handia pizten zuen gai bat landu izan dut, aldez aurretik espero ez banuen ere halako harre-
ra ona izango zuenik.

Datuekin lan egiten dugunean, hainbat erataria izaten dugu informazioa. Sarritan, irudi gisa izaten ditugu artxiboak (*pdf* artxibo-formatu gisa, edo zuzenean eskaneaturiko irudien modura).

Bada, irudi batetik testua atera eta digitalizatzeko modu erraz bat OCR izeneko programak dira (*Optical Character Recognition* deritze, ingelesez). Nik erabiltzen dudana *ABBYY FineReader* izenekoa da, eta fin egiten du lan.

Irudi gisa daukazuen informazioa testu digitala bihurtu nahi baduzue, biziki gomendatzen dizuet.

6. Testu prozesadorea

Idazle gehienok idazteko erabiltzen dugun tresna nagusia da. Hala eta guztiz ere, badira askotan ezezagunak zaizkigun (eta benetan lagungarriak diren) funtzio eta erabilpen «txiki» batzuk. Bi baino ez ditut ekarriko hona, behar baino gehiago ez luzatzeko.

Xuxen izango da, ziur asko, euskal idazleen (kazetarien, itzultzaileen...) artean ezagunena eta erabiliena. *Xuxen* zuzentzaile ortografikoa da eta testu bat aztertzen duenean, ortografia-akatsak azpimarratuko dizkizu. Ez du magiarik egingo, noski (ez du testurik idatziko), baina idatzitako pixka bat txukuntzeko edo garbitzeko aproposa da.

Badira *Xuxen* bezain praktikoak izan daitezkeen beste aukera batzuk ere. Testu-prozesadorean bertan, esate baterako, *Sinonimoen funtzioa* dago: sinonimoen kuxak hitzekin jolas egiteko aukera handia ematen du (baita euskaraz ere), sortzeko orduan, itzultzeko orduan... eta nahiko modu azkarrean gainera. Idazle gisa, hitzekin eta ideiekin egiten dut lan. *Sinonimoen funtzioarekin* erraza da bidezidor ideologikoak osatzea (nola-bait esatearren): alegia, ideia bat hautatu ondoren, hari loturiko beste ideia batzuk biltzea. Literaturaren mozorroari kolore eta maskara gehiago eransteke. Azken batean, eta goraxeago esan den bezala, jolas egiteko.

*Denbora hobeto
aprobetxatu nahian,
testuak ahots bihurtzen
dituzten programa batzuk
aurkitu nituen. Oso
sinpleak dira. Nik gehien
erabiltzen dudana
TextAloud izenekoa da.*

*Bada, irudi batetik testua
atera eta digitalizatzeko
modu erraz bat OCR
izeneko programak dira
(Optical Character
Recognition deritze,
ingelesez). Nik erabiltzen
dudana ABBYY
FineReader izenekoa da,
eta fin egiten du lan.*

Badira Xuxen bezain praktikoak izan daitezkeen beste aukera batzuk ere. Testu-prozesadorean bertan, esate baterako, Sinonimoen funtzioa dago: sinonimoen kutzak hitzekin jolas egiteko aukera handia ematen du (baita euskaraz ere), Idaztean, beste zenbait lanetan bezala, orduak ematen ditugu eserita edota ordenagailuko pantailatik testuak irakurtzen. Ondorioz, ez da batere ezohikoa aurkitzea, idazleen artean, bizkarreko edo begietako minez ibiltzen direnak.

7. Osasuna

Komeni baino gutxiago lantzen dugun alorra da osasuna, idazteko orduan bete-betean eragiten digun arren. Idaztean, beste zenbait lanetan bezala, orduak ematen ditugu eserita edota ordenagailuko pantailatik testuak irakurtzen. Ondorioz, ez da batere ezohikoa aurkitzea, idazleen artean, bizkarreko edo begietako minez ibiltzen direnak.

Duela gutxi ezagutu ditudan bi gailu xeble gomendatuko ditut, azaletik lekuz kanpoko zerbait dela eman badezake ere.

1) **Eyezone.** Lehenbizikoa, betaurreko moduko batzuk dira. Internet bitartez lortu ditut, hemen inguruko dendetan ez bainuen aurkitu (edo hobeto esanda bai, batean aurkitu nuen, baina Sarean baino askoz garestiago). Motzean azalduta, betaurreko horiek motor txiki batzuk dituzte, eta martxan jartzean begi ingurua erlaxatzen dute. Horretaz gain, barruko giharrak lasaitzera derrigortzen dute begia. Jantzita dituzula, espazio-ontzi batean zoazela ematen du. Baina hara, itxura gorabehera, ederki eskertzen dute nire begiek.

2) **Chi-makina.** Beste xeblekeria interesgarri bat, primerakoa bizkarrarentzat. Jostailua dirudi, itxuraz, eta oso erraza da erabiltzea. Chimakinak hankak jartzeko bi gunetxo ditu. Lurrean etzan eta hankak han jarri ondoren, makinak goitik behera astintzen zaitu, eta bost minutuko jardunaldi bat nahikoa da bizkarra lasaitzeko. Makinak ez du asko balio, eta ez zait iruditzen bost minutu asko denik bizkarra hobeto izateko.

AMAITZEKO

Idazteko tresna, programa eta gailu gutxi batzuk baino ez ditut aipatu orriotan, eta nahiko azaletik gainera. Edonola ere, interesa duenak hemen esandakoa abiapuntu hartu eta bere kabuz sakontzeko modua egingo duela espero dut.

Teknologiari eta literaturari loturiko ahalik eta alor gehienak ukitzen ahalegindu naiz, baita sorkuntzatik bertatik apur bat urrun zeuden bakan batzuk ere. Baina garbi dago laburpen baten laburpena baino ez dela hau. Hala behar du: izan ere, benetan ikasteko, betiko bideari heldu behar izango baitiogu: proba egin eta jardun. Ziur nago merezi duela.

Ohiturak ohitura eta tekno-beldurrak tekno-beldur, garbi daukat informatikaren eta teknologiaren munduak beste bide batzuk ekarriko dizkigula hitzekin jolas egiten dugunoi. Abantaila baino ezin da izan hori.■